# Uztaritze USTARITZ

www.ustaritz.fr

5. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA
BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N°5
UZTAILA 2016 / JUILLET 2016

## Obraleku ainitz hasiak dira

> Hiri erdiko bi gazteluen berritzea
> Eraikinen azterketa eta planoak Heraitzen eta Arruntzan
> Bideetako lanak hiri erdian eta Hiribeheren

## De nombreux chantiers sont démarrés

> La rénovation des 2 châteaux du Centre Ville
> L'étude et les plans de bâtiments à Heraitze et Arruntza
> Des travaux de voirie au Bourg et à Hiribéhère



# AURKIBIDEA
# SOMMAIRE

**HIRIGINTZA / URBANISME**
Travaux voirie ....4
Bide lanak ....6

**AUZO KOMITEAK / COMITES DE QUARTIERS** ....8

**AGENDA 21**
Bil ta Garbi & I-Ener ....10

**HIZKUNTZA POLITIKA / POLITIQUE LINGUISTIQUE** ....11

**HEZKUNTZA / EDUCATION**
Jantegiak / Cantines ....12
Greba mugimendua / Mouvements de grève ....13

**ELKARTEAK / ASSOCIATIONS** ....14

**FINANZAK / FINANCES** ....16

**LABURRAK / BREVES** ....18

**TOLOSAREKIN SENIDETZEA / JUMELAGE TOLOSA** .... 20

**GIZARTEA / SOCIAL**
Uztaritzeko GEHZ / Le CCAS d'Uztaritze ....22

**KULTURA / CULTURE**
FAMDT topaketak 2016 / Rencontres FAMDT 2016....24

**OPOSIZIOA / OPPOSITION**
Aimer Ustaritz ....25
Unis à Gauche ....26
Ustaritz avec bon sens....27

**EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL** .... 28

**Argitaratze zuzendaria** / Directeur de publication : Bruno CARRERE
**Diseinua** / Mise en page : Harri IDOATE - Izarte Komunikazioa - www.izarte.com
**Inprimategia** / Imprimerie : Imprimerie ABERADERE - 64100 Baiona / Bayonne



Bruno
CARRERE
Auzapeza / Maire

Uztariztar maitea,

2016 urte hau, Ipar Euskal Herriko herrien gehiengo zabal batek 158 herrik osatzen duten HELEP (Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publikoa) bakarra sortzearen aldeko hautua egin izanak markatu du. Anbizio handikoa baina konplexua den proiektu horretan Uztaritzek merezi duen lekua ukan dezan gure esku den guzia eginen dugu. Ondorioz, herriarteko egiturarekin Errobi Herri Elkargoa desagertuko da. HELEP bakarraren eskumen hartzea aitzin, Errobik bere eskumenetan haur ttipiak eskumena bere egina izanen du. Uztaritzeko igerilekuaren esku aldatzea ere bide onean da eta, erabiltzaileen % 70a herritik kanpotik heldu den jendea dela jakinez, ez dugu gehiago karga bere osotasunean jasan beharko.

Uztaritze berari dagokionez, urte erdi honetan, Uztaritzeko Les Labourdins eta Tennis Club klubek gogokoen duten kirolean irailetik goitik aritu ahal izateko, Etxeparea kirol zelai eremuaren berritzea abiatuko da.

Bide obrak, Astoloberria biribilgunearen (Saint-François Xavier eskolaren heinean) finitzearekin eta herri barneko karrikaren berritze osoarekin, molde biziki onean aitzinatzen ari dira. Auzo Batzordearekin elkar aditu ondoren, bide obrak eta Hiribehereko aparkalekuen obratzea ere uda honetan berean hasiko dira.

Heraitzeko eskolaz kanpoko egituren eta elkarteen eraikineko planoak ere elkarte guziekin eta Auzo Batzordearekin batera landu dira: obrak sartzean berean abiatuko dira. Gisa berean Arruntzan, Auzo

# MOT DU MAIRE / SAR HITZA

Batzordeak sortu duen lan talde batekin eztabaidatu ondoren eta elkarte batzuk kontsultaturik, Matzikoenearen egokitzea fase erabilgarrian sartu da eta elkarteen gela urtea finitzerako sortuko da.

"Uztaritzen Kantuz" ekimena martxan eman dugu eta ukan duen arrakastak eta parte hartzaileen bozkarioak, 3 auzoetan iragaten den ospakizun hori gure ohiduretan sartzera azkarki pusatzen gaitu. Ekimen hori, denen parte hartzeari esker indarra hartzen ari diren beste kultura eta festa ekitaldiei gehitzen zaie.

Euskararen alde egin dugun lana, Errobi Herri Elkargoaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean izenpetu den Hobekuntza Hitzarmenak ere markatu du, honek herriko langileei zerbitzu elebiduna bermatzeko ahala emanen die.

Tolosarekin genuen harremana azkartu da, ez herriko etxeen artean soilik baita elkarteen, ikastetxeen eta abarren artean ere.

Gure finantza politika fruitu ematen hasia da, zorren apaltzea lekuko. Aurten, Estatuaren zuzkiduren etengabeko apaltzeek zergen tasa emendatzera behartu gaituzte, baina hala ere gurekin konpara daitezkeen eta hurbilekoak diren beste herrien azpitik egoten segitzen dugu.

Herriko etxeko taldearen izenean, uda goxoa pasa dezazuen eta Uztaritzeko bestak goza ditzazuela desiratzen dizuet.

Chers Uztariztar,

Cette année 2016 aura été marquée par le choix largement majoritaire des communes du Pays basque Nord pour la création d'un EPCI (Etablissement Public de Coopération Intercommunale) unique à l'échelle des 158 communes qui le constituent. C'est un projet ambitieux, mais complexe où nous ferons tout pour qu'Uztaritze ait la place qu'elle mérite. Le niveau intercommunal verra ainsi disparaître la Communauté de Communes Errobi. Avant la prise de ses compétences par l'EPCI unique, Errobi aura intégré dans ses compétences la petite enfance. Le transfert de la piscine municipale d'Uztaritze est en bonne voie et nous n'aurons plus à supporter l'intégralité de sa charge  sachant qu'elle est fréquentée par 70 % d'usagers hors commune.

En ce qui concerne Uztaritze proprement dit, ce semestre verra le lancement des travaux pour la rénovation de la plaine des sports Etxeparea afin que les clubs des Labourdins et du Tennis Club d'Uztaritze puissent y pratiquer dès septembre leur sport favori.

Les travaux de voirie avancent de façon très notable avec la livraison du rond-point Astoloberria (au pied du collège Saint-François Xavier) et la réfection totale de la rue du Bourg. Les travaux de voirie et la réalisation de parkings à Hiribéhère vont également démarrer cet été après concertation avec le Comité de Quartier.

Les plans du bâtiment périscolaire et associatif d'Heraitze ont aussi été travaillés avec l'ensemble des associations et le Comité de Quartier : les travaux vont être lancés à la rentrée. De même à Arruntza, après plusieurs échanges avec un groupe de travail créé par le Comité de Quartier, et consultation des associations, l'aménagement de Matzikoenea entre dans une phase opérationnelle et la salle associative sortira de terre en fin d'année.

Nous avons initié « Uztaritzen Kantuz » dont le succès et la joie des participants nous incitent fortement à ritualiser cet évènement qui se déroule dans 3 quartiers. Cette initiative s'ajoute aux manifestations culturelles et festives qui se confortent grâce à la participation de tous.

Notre action en faveur de la langue basque aura également été marquée par la signature du Contrat de Progrès avec la Communauté de Communes Errobi et l'Office Public de la Langue Basque, qui permettra aux agents de pouvoir assurer un service bilingue.

Les liens avec Tolosa se sont renforcés, non seulement entre les municipalités mais aussi entre associations, établissements d'enseignement…

Notre politique financière commence à porter ses fruits avec en particulier un endettement qui diminue. La constante diminution des dotations de l'Etat nous a contraint cette année à augmenter les taux d'imposition, mais nous restons encore nettement en dessous des communes comparables et proches.

Je vous souhaite à tous, au nom de l'équipe municipale, un excellent été et de très bonnes fêtes d'Uztaritze.

# TRAVAUX VOIRIE

Malgré un état des finances contraint, nous avons opté pour une politique volontariste de modernisation et mise aux normes des équipements communaux.

Après les remises à niveau, l'épuration de litiges, malfaçons, et autres abandons, nous pouvons investir toutes nos capacités dans une dynamique constructive pour offrir de meilleurs services aux uztariztar.

L'épineux dossier du terrain de foot Etxeparea entre dans une phase concrète de travaux. Les expertises terminées, nous avons pu passer les Appels d'Offres pour démarrer le chantier de réfection. Les travaux démarrent ce début d'été. La difficulté essentielle du dossier est de faire avec ce qui existe (une délocalisation du site étant impossible) sans avoir la possibilité réglementaire de faire des protections contre les inondations qui ne manqueront pas de survenir. Ces travaux devront en outre renforcer les ouvrages pour faire face à l'inondabilité non prise en compte initialement. En parallèle, les démarches en justice suivent leur cours.

Mais les difficultés d'un chantier ne doivent pas bloquer la modernisation des infrastructures d'Uztaritze et ce début 2016 voit la concrétisation de plusieurs projets :

## BOURG- PURGU

Malgré des finitions d'enrobés à compléter après la fin du chantier de la nouvelle gendarmerie, la gare routière ASTOLOBERRIA est opérationnelle : dès la rentrée scolaire, les bus et les parents d'élèves pourront l'utiliser. Couplée au nouveau rond-point sur la RD932 cette entrée de ville est enfin sécurisée.

Le chantier de rénovation de la rue du Bourg depuis ce rond-point jusqu'à la croix vient sécuriser les flux de circulation ; les travaux seront terminés pour cet été. Cela implique aussi de nombreux réajustements en cours dans les rues adjacentes.

## HIRIBEHERE

Le deuxième semestre verra le démarrage de la remise à neuf de la rue Hiribehere avec une première tranche depuis le carrefour de Milafranga jusqu'au magasin Mendikoa. Dans cette rue très étroite, très fréquentée et accidentogène, des nouveaux équipements au carrefour, plusieurs écluses de circulation, des cheminements piétons vont permettre une meilleure harmonie entre les différents usagers.

Autre aménagement majeur avec la création de 2 parkings derrière le fronton Hiribehere :

- un en commun avec celui de la Congrégation des Filles de la Croix
- un autre sur un terrain récemment acheté par la commune de l'autre côté de la maison Sortha .

Ces aménagements devraient être opérationnels d'ici la fin de l'année. Cela permettra de rendre au fronton sa fonction initiale d'espace de jeux et de vie.

A Bilgune la rénovation des frontons de rebot et de leurs gradins sera terminée pour les grands rendez vous de cet été dont l'ouverture des finales de Ligue du Pays Basque le 10 juillet et de la Grande Semaine de Pelote le 07 août.

## HERAURITZ - HERAITZE

La rénovation de la maison Etxetoa va permettre, dès la rentrée scolaire, de répondre au manque de salles dans l'école et ainsi soulager un fonctionnement très contraint. En complément, le projet de bâtiment périscolaire et associatif avance bien : après l'achat du terrain, le projet architectural a été présenté aux divers acteurs, les travaux vont démarrer à la rentrée.

Une étude pour les traçages et modifications de stationnements sur la place a été commandée à un cabinet et présentée au comité de quartier. Les travaux démarreront cet automne.

## ARRAUNTZ - ARRUNTZA

L'aménagement de Matzikoenea a été travaillé avec le comité de quartier et présenté aux habitants en réunion publique. Le chantier de la salle associative va démarrer au dernier trimestre.



Une étude pour la sécurisation de la RD350 (vers Arrangoitze) est en cours avec un cabinet spécialisé et les techniciens du Département.

## SAINT MICHEL

A la grande satisfaction de tous, le feu rouge de Bidekurutzea est en place et apporte une vraie sécurité sur ce carrefour très fréquenté. En complément le département est en train de placer des glissières de sécurité sur le tronçon allant vers Etxehasia.

Pour début juillet, l'escalier montant d'Hiribehere à la rue Eliza Hegi (vers le cimetière) sera rénové.

La modification du stop en bas du chemin Landalarre couplé au nouveau rond-point du bas du collège permet de sortir et aller vers le centre d'Uztaritze en toute sécurité.

## ETXEHASIA

Un premier éclairage et une présignalisation lumineuse apportent une amélioration au niveau du rond-point Bolagaina mais le gros des travaux (passage protégé, cheminement vers les conteneurs et l'arrêt de bus) se fera avec le démarrage du programme immobilier du bas de Bolagaina .

Le local Etxehandikoborda a été rénové (toitures, électricité, chauffage, peintures) et l'été verra la mise en place de tables de pique-nique et un portail permettant l'accès aux piétons, personnes à mobilité réduite et poussettes.

Les importants travaux précités ne se font pas au détriment de l'entretien de la voirie pour lequel un budget identique à celui de 2015 a été reconduit cette année.

## UZTARITZE ET L'ACCESSIBILITE : Un bon point en attendant la suite

Après 2 ans de réflexion en équipe et de travail en commission Accessibilité, Uztaritze est passé de la 11ème à la 6 ème place dans le baromètre de l'Accessibilité effectué par le collectif Handi 64.

La loi du 11 février 2005 oblige les communes à rendre leurs Etablissements recevant du public accessibles à tous les handicaps (visuels, auditifs, moteurs et cognitifs).

Suite au diagnostic établi par un cabinet spécialisé, nous nous sommes engagés à un agenda d'une durée de 9 ans pour effectuer les travaux nécessaires. Cet agenda (disponible sur le site de la mairie www.ustaritz.fr) a été validé par la préfecture le 02 juin 2016.

Nous avons décidé de prioriser les travaux dans les établissements recevant des enfants. Cette année nous commencerons par l'école d'Arruntza et l'école Idekia.

De plus, comme l'année passée, nous conservons une ligne spécifique au chapitre Voirie permettant d'améliorer et d'équiper le cheminement et les accès.

Nous sommes déterminés à rendre Uztaritze et tous ses quartiers accessibles à tous.

# BIDE OBRAK

Finantzaren egoera zaila izanik ere, modernizazio politika boluntaristaren eta herriko ekipamenduak normetan ezartzearen alde egin dugu.

Heineratzea eta auzi ezberdinen, makurguneen eta beste uzteen araztea egin ondoren, Uztariztarrei zerbitzu onena eskaintzeko dinamika eraikitzaile batean engaia gaitezke.

Etxeparea futbol zelaiaren dosier korapilatsua obren fasean sartzekoa da. Adituek txostena finiturik, berritze lana abiarazi ahal izateko Eskaintza Deialdia luzatu ahal izan dugu. Lanak uda honen hastapenean abiatuko dira. Dosier honek agertzen duen zailtasun handiena badenarekin egin behar dela da (tokialdatzea ezinezkoa denez), nahi ala ez errepikatuko diren uholdeen aurkako babesak egiteko legezko ahalik ez baitugu. Lan horiek bestalde, hastapenean kontuan hartu ez zen urpetzeko arriskuari buru egiteko obra indartu beharko dute. Memento berean, justizia desmartxek haien bidea segitzen dute.

Baina xantierak dituen zailtasunek ez dute Uztaritzeko azpiegituren modernizatzea oztopatu behar eta 2016 urte hastapen honek proiektu batzuen gauzatzea ikusi beharko luke:



## PURGU

Jendarmeria berriko xantiera finitu ondoren azken bide estaltze lanak egitekoak badira ere, ASTOLOBERRIA autobus geltokia erabilgarria da: sartzetik aitzina, autobusek eta ikasleen burasoek baliatzen ahalko dute. 932 Bigarren Mailako errepidean den biribilgune berrira egokitua, herriko sartze hori segurra da, azkenean.

Biribilgune horretatik gurutzeraino doan Purguko karrikaren berritze xantierak autoen joan jinerako segurtasun neurriak ekartzen ditu; lanak uda honetan finituko dira. Horrek ondoko karriketan berregokitze anitz egin behar dela erran nahi du.

## HIRIBEHERE

Urteko bigarren sei hilabeteetan Hiribehere karrikaren berritze lanak abiatuko dira, lehen zatia Milafranga bide gurutzetik Mendikoa dendarainoko izanen delarik. Karrika hori biziki hertsia eta jendetsua da eta istripu anitz sortzen ditu; ondorioz karrika horretako bidegurutzean ekipamendu berriak ezartzeak, zirkulazioa aldizkatzeko bide hertsitzeak eta oinezkoendako ibilbideak plantan emateak erabiltzaile ezberdinen harmonia hobea ahalbidetuko dute.

Hiribehere frontoinaren gibelean 2 aparkaleku eraikitzearekin, garrantzia handiko beste egokitze bat eginen da:

- bat Gurutzearen Alaben Kongregazioarenarekin baltsan
- beste bat Shorta etxearen beste aldean herriak erosi berri duen lursail batean.

Egokitze horiek urte bukaerarako erabilgarri izan beharko lukete. Horrek frontoinak duen jokorako gune funtzioa bete dezan ahalbidetuko du.

Bilguneko luzeko plazako murruen eta harmailen berritzea uda honetako hitzordu handirako finitua izanen da, hots, uztailaren 10ean iraganen diren Euskal herriko Ligako finalendako eta agorrilaren 7ko Pilotaren Aste Handirako.

## HERAITZE

Sartzetik goiti, Etxetoa etxearen berritzeak eskolan den gela eskasiari buru egitea ahalbidetuko du, biziki korapilatsua den funtzionamendua arinduz. Horrez gain, eskolaz kanpoko aktibitateen eta elkarteen eraikinaren proiektua bide onean da: lurra erosi ondoren, arkitektura proiektua eragile ezberdinei aurkeztu zaie eta lanak sartzean abiatuko dira.

Kabinete bati aparkalekuen moldatze eta trazatze ikerketa bat manatu zaio eta auzo batzordeari aurkeztu. Lanak udazkenean abiatuko dira.

## ARRUNTZA

Matzikoenearen berrantolaketa auzo batzordearekin landu dugu eta bilkura publiko batean biztanleei aurkeztu zaie. Elkarteen gelaren xantiera azken hiruilean abiatuko da.

350 Bigarren Mailako errepidearen (Arrangoitzera buruz) segurtasuna bermatzeko ikerketa kabinete berezitu baten eta Departamenduko teknikarien esku da.

Etxehasia: Lehen argiztapen batek eta seinalatze argidunak hobetzea dakarte Bolagaina biribilgunearen heinean, baina lan handienak (pasaia babestua, edukiontzirako ibilbidea eta autobus geltokia) Bolagaina azpiko hirigintza programa abiatuko delarik eginen dira.

Etxehandikoborda egoitza berritua izan da (teilatu, argindar, berogailu, tindu) eta uda honetan piknikarako mahaien eta oinezkoen, elbarrituen eta haur karrosen sargia ahalbidetzen duen atelada plantan emanen da.

Aitzinetik aipatu ditugun lan garrantzitsuak ez dira bideen mantenu lanen kaltean eginen eta ondorioz 2015eko aitzinkontua bera berritu da aurten.

## UZTARITZE ETA IRISGARRITASUNA: puntu on bat ondotik jinen denaren beha

2 urtez taldean hausnartu et Irisgarritasun batzordean lan egin ondotik, Handi 64 kolektiboak egin duen Irisgarritasun barometroaren arabera Uztaritze 11. lekutik 6.lekura pasa da.

2005eko otsailaren 11ko legeak, publikoa hartzen duten eraikinak ahalmen urritasun mota guziendako (ikusmen, entzumen, motor edo urritasun kognitibo) eskuragarri jartzera behartzen ditu herriko etxeak. Kabinete berezitu batek eginiko diagnostikoaren ondorioz, beharrezkoak diren lanak egiteko 9 urtekoa den plangintza betetzera engaiatu gara. Plangintza hori (www.ustaritz.fr herriko etxearen webgunean ikusgai) prefekturak ontzat jo zuen 2016ko ekainaren 02an.

Lehentasuna haurrei harrera egiten dieten eraikinetako lanei eman diegu. Aurten, Arruntzako Idekia eskolatik hasiko gara.

Gainera, iaz bezala, irispidea eta sargiak hobetzea eta ekipatzea ahalbidetzen duen Bide Obren atalaren ardatz espezifikoa mantenduko dugu.

Uztaritze eta bere auzo guziak denendako eskuragarri bilakatzeko xede fermua dugu.

**LABURRA / BREVE**

## ETXETOA
### Heraitzeko eskolaren faboretan

Heraitzeko eskolaren faboretan egiten ari diren Etxetoa etxe behereko hobekuntza lanak uda honetan finitu beharko lirateke.

Hezkuntza taldearekin elkar aditu ondoren egin den hedatze horrek eskola hori arintze eta aktibitateetarako eremu berria eskaintzea ahalbidetuko du, ttipien pausa gelari eta motrizitate gelari harrera eginez.

Eremu horri, irakasleen eta TAP animatzaileen esku direnak gehituko zaizkio eskolaz kanpoko aktibitateendako eta elkarteendako den eraikinean.

## ETXETOA
### Au profit de l'école d'Hérauritz

Les travaux d'aménagement du rez-de-chaussée de la maison Etxetoa au profit de l'école d'Hérauritz sont en cours et devraient s'achever cet été.

Cette extension, réalisée en concertation avec l'équipe éducative, en accueillant la salle de sieste des petits et une salle de motricité va permettre de désengorger cette école et d'offrir de nouveaux espaces d'activités.

A ces espaces vont s'ajouter ceux qui seront mis à disposition des enseignants et animateurs des TAP dans le nouveau bâtiment périscolaire et associatif.

# AUZOETAKO KOMITEAK / COMITÉS DE QUARTIERS

**1** > Arruntzako eta Heraitzeko autobus geltokien segurtatzea
> Amélioration de la sécurité des arrêts de bus d'Arruntza et Heraitze

**2** > Oinezkoen pasagune baten antolaketa Hiribehere karrikan, komertsio eta zerbitzuetara buruz
> Mise en place d'un passage piéton Rue Hiribéhère pour accéder aux commerces et services

**3** > Posta letra ontzi baten ezartzea, Etxehasia auzoaldeko Bolagaina biribilgunearen heinean
> Mise en place d'une boîte aux lettres postale au niveau du rond-point Bolagaina au quartier Etxehasia

**4** > Abiadura mugak erakustera ematen duten seinale batzuren lekuan ezartzea Etxehasia auzoaldean
> Mise en place de panneaux rappelant les limitations de vitesse au quartier Etxehasia

**5** > Stop seinale baten eta miraila baten lekuan ezartzea, San Mixel auzoaldeko Puttuenea Bidean
> Mise en place d'un stop et d'un miroir Chemin Puttuenea au quartier St Michel

**6** > Heraitzeko Haltya biribilgunearen berrantolaketa, ikuspen gehiagoren ukaiteko,
> Reprise du rond-point Haltya à Heraitze pour plus de visibilité

**7** > Radar pedagogiko baten lekuan ezartzea, auzoaldeetako batzordeak erakustera eman dituzten errebideetan
> Mise en place d'un radar pédagogique sur les routes identifiées par les comités de quartier

**8** > Etxehasiako Urloko Errekako oin-zubiak, erabiltzaileei eta lekuko biztanleei oihanera hurbiltzea eraztuko zitzaie
> La passerelle d'Urloko Erreka au quartier des Bois va faciliter l'accès à la forêt à tous les usagers et riverains.

Auzoaldeetako batzordeek biltzen jarraitzen dute ohituki, eta beren auzoaldeetako biziaren hobetzeari buruzko xedeak agertzen dituzte. Obratze batzuren adibide batzu...

Les comités de quartier continuent de se réunir régulièrement et émettent de nombreuses propositions pour améliorer la qualité de vie de leurs quartiers. Quelques exemples de réalisation...

1


1


2


3


4



5



5



6



7




8





# BIL TA GARBI

Le Syndicat Bil Ta Garbi a la mission de traitement des déchets ménagers sur plus de 200 communes de l'Ouest du département des Pyrénées-Atlantiques. Dans le cadre de la mise en place d'un Agenda 21 sur Uztaritze et du programme « Territoires Zéro Déchet Zéro Gaspillage » mené par le Syndicat Bil Ta Garbi, une convention pour développer une politique pour le tri et la valorisation des déchets produits par l'activité des services municipaux a été signée. Dans ce cadre, un stagiaire est chargé de mener cette réflexion afin d'établir un état des lieux et de proposer un plan d'actions pour :

- Mettre en place le tri des déchets au niveau des différents services et infrastructures publiques,
- Mener une démarche de prévention,grâce en particulier à la chasse aux gaspillages.

La commune d'Uztaritze est une commune pilote car l'intervention du Syndicat Bil Ta Garbi à Uztaritze est une première expérience que le syndicat veut par la suite reproduire sur son territoire pour promouvoir l'exemplarité des collectivités locales.

Bil Ta Garbi Sindikatuak, Pirinio Atlantikoetako departamendu Mendebaldeko 200 herri baino gehiagoren etxe-hondakinen tratatzeko eginkizuna du. Uztaritzen Agenda 21 plantan ezartzearen eta Bil Ta Garbik eramaten duen "Zero Hondakin Lurraldea Zero Xahutze" programaren baitan, herriko etxearen zerbitzuen aktibitateak sortzen dituen hondakinen sailkatze eta balioztatzeko politika garatzeko hitzarmena izenpetu dugu. Hartara, ikastun langile batek hausnarketa hori eramateko ardura du, lekuaren egoera akta egin eta ekintza plan bat proposatuz:

- Zerbitzu eta azpiegitura publiko ezberdinen mailan hondakinen sailkatzea plantan ezartzeko
- Prebentzio desmartxa bat eramateko, batez ere xahutzearen aurkako borroka eramanez.

Bil Ta Garbi Sindikatuaren esku hartzea lehen esperientzia bat denez, Uztaritzeko herria herri pilotua da. Sindikatuak, berak kudeatzen duen lurralde osora ondotik hedatu nahi duen esperientzia da, tokiko kolektibitateen eredugarritasuna sustatzeko asmoz.

## I-ENER

**L'ÉNERGIE CITOYENNE ET SOLIDAIRE**
**HERRITARREN ENERGIA**



2016ko martxoaren 31ko herriko kontseiluan I.Enerekin hitzarmen bat sinatzearen aldeko erabakia hartu genuen, herriko 2 eraikinetan energia herritar eta berriztagarria ekoizteko proiektua bururat eraman zezan. Hitzarmenak Arruntzako eskolako eta Kiroletako teilatuetan zentrala fotovoltaikoak ezartzeko eta hauen ustiatzeko baimena ematen dio I-Ener-i. Lanak 2016ko apirilean burutu ziren. I-Ener-ek energia berriztagarrien bidez Euskal Herrian energiaren jabetzea xerkatzen duenez, Uztaritzeko herriko etxeak ekimen horretan parte hartu nahi izan du.

I-Ener-ek bere panel fotovoltaikoak Uztaritzen ezarri dituen lehen herria da baina aztertze fasean diren beste proiektu anitz bada. Informazio gehiago ukan edo herritar ekimen horretan parte hartu nahi izanez gero, haien webgunean sar zaitezke: **www.i-ener.eus**

Lors du conseil municipal du 31 mars 2016, une délibération a été votée pour conclure une convention avec I.Ener lui permettant la réalisation de projets de production d'énergie citoyenne et renouvelable sur 2 bâtiments communaux. Elle permet l'implantation et l'exploitation de centrales photovoltaïques sur les toits de l'école d'Arruntza et de Kiroleta. Les travaux ont eu lieu en avril 2016. La mairie d'Uztaritze a souhaité participer au développement de cette initiative citoyenne car I.Ener vise l'appropriation de l'énergie au Pays Basque par le développement des énergies renouvelables. Uztaritze est la première commune où I.Ener a installé des panneaux photovoltaïques mais de nombreux autres projets sont à l'étude. Si vous souhaitez plus d'informations ou souscrire à cette initiative citoyenne, vous pouvez consulter leur site internet sur **www.i-ener.eus**.

## BEKAK

Euskara ikasteko molde anitz bada baina eraginkorrena erabateko murgiltzea da, dudarik gabe. Aukera hori, euskara hutseko ingurunean burutzen den eta hilabete bateko iraupena duen barnetegi batean egitea proposatzen da. Kurtsoei, otorduei, animazioei eta ateraldi ezberdinei esker Euskara ikasten eta hobetzen ahalko da. BEKAKek ematen dituen kurtsoez baliatu nahi duen Uztariztar oro lagundu ahal izateko, Uztaritzeko herriak 2.000 euroko diru laguntza esleitzeko erabakia hartu du. Diru laguntza hori eskuratzeko baldintzak betetzen dituzun jakiteko, begira ezazu Herriko etxearen webgunean (www.ustaritz.fr) edo zoaz zuzenean Lagunen Etxeara edo herriko etxeko Gaztelondo egoitzara eskaera eskaera orria hartzera.

## BAI EUSKARARI

BAI EUSKARARI labelak, haien egituretan erabilera sustatuz Euskara sustengatzen duten eragileak biltzen eta ezagutarazten ditu. Iaz, Uztaritzeko 33 komertsantek jaso zuten label hori. Aurten, 12 elkarteren kidetzeari esker, gure herrian 45 labeldun ditugu. Emaitza hori ez da berez helburu bat. Ekainaren 1ean, denendako egokia izanen den tresna berri baten pentsatzeko asmoz, "labeldunak" eta haien sentipena, iritzia eta beharrak adierazi nahi dutenak biltzeko bilkura bat iragan zen.

## UZTA HITZAN

Joan den Azaroan, Esukararen nazioarteko egunaren karietara, UZTA HITZANen bigarren emanaldia iragan zen. UZTA HITZANek ikerketa, historia, humorea, jokoak...



Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartea

bezalako gaiak proposatzen ditu Euskaraz. Mila esker antolatzaile eta elkarteei (IKAS, ZORTZIKO, eta UEU) egitarau aberatsa eskainiagatik, baita parte hartu duten guziei ere. UZTA HITZANen 3. emanaldia ospatzeko, heldu den Azaroa iristea berantesten dugu eta egundanik hartan parte hartzera deitzen zaituztegu.

## HOBEKUNTZA HITZARMENA

Jadanik EUSKARAren aldeko sustapen sozio-ekonomikoaren animazioan engaiaturik, Herriak, hobekuntza hitzarmena izenpetu zuen Errobi Herri Elkargoa eta Euskararen Erakunde Publikoarekin (EEP) joan den apirilaren 26an. Sei urteko balioa duen akordio hori bi ardatz nagusitan oinarritzen da: Herriko dokumentu ofizial guziak euskarara itzultzea eta herritarrendako zerbitzu elebiduna bermatu ahal izateko herriko langileak formatzea. Aurten 10 langile dira formakuntza hori jasoko dutenak eta kostua ondoko moldean banatua da: Errobik %42, Herriak %33 eta EEPk %25. Guziaren segimendua egiteko Errobi Herri Elkargoko teknikari bat, EEPko teknikari bat eta Uztaritzeko hiru hautetsi (Bruno Carrère auzapeza, Marie France Séméréna axuanta eta Yves Matxikote ordezkaria) dituen gidaritza batzordea sortu da.

## BEKAK

Il existe différentes façons d'apprendre l'Euskara mais la plus efficace est certainement l'immersion totale. Cette opportunité est proposée en internat dans un environnement entièrement en langue basque pendant un mois. Grâce aux cours, repas, animations et diverses sorties, il sera possible d'apprendre et d'améliorer votre Euskara. Afin d'aider les Uztariztar qui désirent profiter de ces cours dispensés par BEKAK, la Commune d'Uztaritze a décidé d'allouer des bourses pour un montant total de 2000 euros. Pour savoir si vous remplissez les conditions d'obtention de cette bourse, rendez-vous sur le site de la Mairie (www.ustaritz.fr) ou bien directement à Lagunen Etxea ou à la mairie Gaztelondoa afin d'y retirer le formulaire.

## BAI EUSKARARI

Le label BAI EUSKARARI rassemble et met en avant les acteurs qui soutiennent l'Euskara par son utilisation au sein de leurs structures. L'année dernière, 33 commerçants d'Uztaritze se sont vu délivrer ce label. Cette année, grâce à l'adhésion de 12 associations, ce sont 45 labellisés que nous comptons sur la commune. Ce résultat encourageant n'est pas une fin en soi. Aussi, une réunion s'est tenue le mercredi 1er Juin pour rassembler tous les « labellisés » et ceux qui voulaient partager leurs ressentis, leurs pensées et leurs besoins afin de repenser pourquoi pas, un nouvel outil adapté à tout le monde.

## UZTZA HITZAN

En Novembre dernier s'est tenue la deuxième édition d'UZTA HITZAN lors de la journée internationale de l'Euskara. UZTA HITZAN propose en Euskara des thèmes tels que la recherche, l'histoire, l'humour, les jeux... Un grand merci aux organisateurs et aux associations (IKAS, ZORTZIKO et UEU) ainsi qu'à tous ceux qui ont participé de nous avoir offert un programme aussi riche. Vivement novembre prochain pour la 3 ème édition d'UZTA HITZAN et nous vous invitons à y participer.

## LE CONTRAT DE PROGRES

Déjà engagée dans l'animation de la promotion socio-économique en faveur de l'EUSKARA la Commune, le 26 avril dernier, a signé le contrat de progrès avec la Communauté de Communes ERROBI et l'Office Public de la Langue Basque (OPLB). Cet accord valable pour une durée de six ans se décline en deux grands axes : traduire en Euskara tous les documents officiels de la Commune et former le personnel municipal à pouvoir assurer un service bilingue aux administrés. Cette année ce sont 10 salariés qui profitent de cette formation dont le coût est réparti comme suit : 42% par Errobi, 33% par la Commune et 25% par l'OPLB. Un comité de pilotage comprenant un technicien de la Communauté de Communes Errobi, un technicien de l'OPLB, et trois élus d'Uztaritze (Bruno Carrère, maire, Marie France Séméréna, adjointe, et Yves Matxikote, délégué) a été constitué afin d'en assurer le suivi.

# JANTEGIAK

Uztaila et agorrila artean Idekia, St Vincent eta Ikastola eskoletako haurrak hartzen dituen jantokiko eraikinean obrak eginen dira. Denbora berean, Aisialdi Zentroan ibiliko diren haurrendako zerbitzua bermatzeko baliabide bereziak plantan ezarriko ditugu.

2014ko azaroko langileen hauteskundeen ondotik, Higiene eta Segurtasun eta Lan Baldintza Batzordea sortu zen. Berehala, batzorde horrek jantegiko langileen aldagelak indarrean diren arauak betetzen ez zituela ohartarazi zigun.

Konponketa ez dugu aldagelen berritze soilera mugatu eta, eraikina bere osotasunean aztertu ondoren eta langileen lan baldintzak hobetu nahian, baxera egiteko baliatzen den gelaren antolaketa berria egin genuen, materiala zaharkitua eta zerbitzu horren hantatzea gero eta handiagoa zela ikusi baikenuen.

Proiektua finitzeko, herriko etxeko taldeak jantegiko langileekin elkar aditurik, bere hausnarketak egin ditu.

Gainera, Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroko Osasuna eta Lan Baldintza Zerbitzuko ergonomian aditua den pertsona bat ekarrarazi genuen, bai langileak haien eguneroko lanean laguntzeko baita jantegiaren egokitze berriaren ondorioz izanen den berrantolaketan laguntzeko ere.

Berantago, lan baldintzen hobetzearen karietara, aditua Heraitzeko eta Arruntzako jantegietako langileekin bilduko da.

# CANTINES

Durant les mois de juillet et août des travaux vont être réalisés dans le bâtiment des cantines accueillant les enfants des écoles Idekia, St Vincent et de l'Ikastola. Durant cette période, un dispositif particulier sera mis en place pour assurer le service des enfants qui fréquentent le Centre de loisirs.

A la suite des élections de personnel de Novembre 2014, un Comité Hygiène et Sécurité et Conditions de Travail (CHSCT) a été créé. Très rapidement, nous avons été interpelés par ce comité sur la non-conformité aux normes en vigueur du vestiaire du personnel de la cantine de ce site.

Sans nous limiter à la seule réhabilitation du vestiaire, en étudiant l'ensemble du bâtiment, nous avons décidé de procéder aussi à un nouvel aménagement de la salle de plonge dans un souci d'amélioration des conditions de travail des agents, au vu de la vétusté du matériel et de l'augmentation de la fréquentation de ce service.

Pour finaliser ce projet, en concertation avec le personnel de la cantine, l'équipe municipale a mené ses réflexions.

De plus, nous avons sollicité une ergonome du Service de Santé et Conditions de Travail du Centre de Gestion des Pyrénées Atlantiques pour accompagner les agents tant dans leur travail au quotidien que dans la réorganisation qui va découler de ce nouvel aménagement.

Par la suite, l'ergonome rencontrera aussi le personnel des cantines d'Hérauritz et Arrauntz dans le cadre de l'amélioration des conditions de travail.

# MOUVEMENTS DE GRÈVE

**Les mouvements de grève fréquents ces derniers jours ont occasionné des perturbations dans l'accueil des enfants. Nous tenons à vous rappeler le dispositif adopté par la commune.**

Pendant les temps d'accueils périscolaires et de cantine, la commune n'est pas tenue d'assurer un service minimum d'accueil qui est par contre obligatoire sur le temps scolaire en cas de grève des enseignants.

Nous avons fait le choix de maintenir les accueils périscolaires et de cantine sous une forme adaptée durant les mouvements de grève de ces derniers mois.

**Nous avons pris des mesures pour:**
- limiter au maximum l'impact pour les familles ,
- respecter le droit de grève des salariés car le droit de grève est un droit constitutionnel, reconnu à tout salarié dans le cadre d'un mouvement collectif et concerté.

**Nous avons adopté les horaires suivants :**
- Horaire de garderie en situation normale : ouverture à 7h30/fermeture à 18h30
- Horaire de garderie en situation de grève : ouverture à 8h00/fermeture à 17h00
- Cantine : horaires du service inchangés ; contenu du repas modifié.

Rappel du protocole qui a été mis en place : tous les parents dont les enfants sont scolarisés dans la commune sont informés par mail, par courrier remis par l'école et par le biais du site de la mairie :
- des horaires en vigueur ce jour-là pour l'accueil périscolaire,
- des dispositions à prendre pour informer le service concerné (CLSH) de la présence ou non de leur(s) enfant(s) au repas de midi et ce dans un délai bien établi (avant 9h le jour précédant la journée de grève).

Le service de la cantine assure en moyenne 569 repas journaliers et il nous est indispensable d'anticiper auprès du prestataire la commande des repas.
Si des modifications devaient être apportées à ce dispositif, tous les parents dont les enfants sont scolarisés dans la commune en seraient informés.

# GREBA MUGIMENDUAK

**Azken aldietako greba mugimenduek haurren harrera trabatu dute. Herriak plantan eman dituen baliabideak oroitarazi nahi genizkizueke.**

Irakasleek greba eginez gero, herriak ez du eskola denboran bermatu behar duen gutieneko harrera zerbitzua eskolaz kanpoko eta jantokiko denbora tartean bermatzerik.
Azken hilabeteetan, greba mugimenduak izan direlarik, eskolaz kanpoko eta jantokiko harrera molde egokituan mantentzeko hautua egin dugu.

**Neurriak hartu ditugu:**
- familienganako eragina ahal bezain bat apaltzeko
